

# Konponbideak zure eskura.

Prozesuak errentagarri  
egiten eta kostuak murrizten  
laguntzen dizugu

# Gure bezeroei zeregin hauek egiten laguntzea dugu helburu:

**1.**  
Balio eran-  
tsi gutxi  
sortzen  
dutenak.

**2.**  
Zerbitzuaren  
kalitatea  
hobetzen  
dutenak.

**3.**  
Kostuak  
murrizten  
dituztenak.

**4.**  
Lehiarako  
abantaila  
handia  
dakartenak.

**LOGIKA**  
**zerbitzu-enpresa da**  
**eta, kostuak murriztuz,**  
**administrazioko**  
**eta bezeroarentzako**  
**arretarako prozesuak**  
**errentagarri bihurtzeko**  
**konponbideak ematen**  
**espezializatuta dago.**

Hori lortzeko, azken belaunaldiko lan-plataformak ditugu, teknologia berrienez hornituta daudenak.

Gure zerbitzuak malgutasun handinez ematen ditugu: eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan ala astean ordu batzuetan.

LOGIKAK bere plataformetan nahiz bezeroen bulegoetan

ematen ditu zerbitzuak, esperientzia ugariako langileen eskutik.

LOGIKAKo giza taldeak 10 urtetik gorako esperientzia du sektorean eta lehena izan da dei-zentro plataforma asko (1etik 150era bitarteko telefono-operadoreduak) aztertzen, antolatzen, kudeatzen, martxan jartzen eta horien jarraipena egiten.



# Zure izenean hitz egiten dugu. Zuretzat entzuten dugu.



Contact-Center-a  
Telemarketina

Telefono bidezko bezeroen arretarako plataformek, deiak egin nahiz jasotzekoek, bezeroen deien arretako erantzun-denbora hobetzen laguntzen digute, baita deien eraginkortasuna eta ebazpena zein kontrola ere.

LOGIKAk kanal hauen bitartez lan egiten du: 900, 901 eta 902 zenbakiak; posta elektro-

nikoa; mezu laburren zerbitzua eta jende askori mezuak bidaltzeko zerbitzua eta enpresen, erakundeen taldeen eta abarren estranet korporatiboen gaineko zerbitzua, besteak beste.





## Call-Center-a eta Contact-Center-a

Etortzen diren deiak (inbound), hots, bezeroek arreta-plataforma batera eta berriazko zerbitzu batera egiten dituztenak jasotzean datza. 900, 901 eta 902 zenbakien bidez, posta elektronikoaren bidez edo antzeko sistemen bidez bezeroei egokitutako arreta eman behar izaten duten enpresen eskura jartzen dugu.



## Contact-Center eleaniztuna

LOGIKAK telefono-deiak modu eleaniztunean erantzuteko aukera jartzen du bezeroen eskura, zerbitzuen beharretara erabat egokituz.



## Telemarketina eta Telesalmenta

Hainbat produktu eta zerbitzu emateko deiak egiten (outbound) gaude espezializatuta: kalitate jarraipenak egiteko; telefono bidezko inkestak eta jarraipenak egiteko; telefono bidezko ikuskaritzak egiteko; ordaingabeak, gorabeherak eta erreklamazioak kudeatzeko eta telefono bidez saltzeko (telesalmenta), besteak beste.



## Lehen mailako laguntza Teknikoko Zerbitzua (Help-Desk-a)

Langile espezializatuak dituen telefono bidezko euskarri zerbitzua da. Bezeroen instalazioetatik nahiz Logikaren plataformetatik ematen da zerbitzua.



## Telefono bidez orduak emateko zerbitzua

LOGIKAK Telefono bidez orduak emateko taxutu duen zerbitzuari esker, denbora eta, batez ere, bezeroen merkataritza-langileen emaitzak hobeto aprobetxatzen dira.



## Arreta Teknikoko Zerbitzua

LOGIKAK ematen duen Arreta Teknikoko Zerbitzua deiak "maila" desberdinetan berehala ebaztean datza. Horrela, ez da deirik behar gabe errepikatzen eta bezeroak gustura geratzen dira.



## Herritarrentzako Arreta Zerbitzua

LOGIKAK ematen duen Herritarrentzako Arreta Zerbitzuari esker, Herri Erakundeek herritarrekiko komunikazioa hobetzen dute, komunikazioa irisgarriagoa baita eta zerbitzua ordu gehiagoz ematen baita.

# Bezero gogobetean, betiko lagun.

Zure bezeroekin hitz egiten dugunean,  
gure taldeak beti onena egiteko ezagutzaz,  
esperientziaz eta asmoaz jarduten du.



## Bezeroarentzako Harrera Arreta Zerbitzuak

Langile gaituak eta, behar izanez gero, eleaniz-  
tunak, jartzen ditugu enpresen eta erakundeen  
eskura, bulegoetako, bulego profesionaletako,  
kliniketako eta abarretako Bezeroarentzako  
Harrera eta Arreta Zerbitzuetan lan egin dezaten.



## Informazio-guneak

Halaber, LOGIKAKo langileek prestakuntza  
egokia eta esperientzia egiaztatua dute  
kontsumitzailearen, bezeroaren edo herritarren  
informazio-guneetan arreta ematen.

# Agiriak maneiatzea ez da beti errentagarria izaten.



Administrazio-lanak

Gero eta enpresa gehiagok azpikontratatzan dituzte eguneroko eta ohiko jardueren kudeaketa. *Outsourcing* deitzen zaio jardunbide horri.

Administrazio-lanak kudeatzeko zerbitzua enpresetan eta erakundeetan erabiltzen diren agiriak izapidetzen adituak diren profesionalak osatzen dute.

Lan horiek era askotakoak izan daitezke, hala nola, agiri bat eskaneatzea, biltegi bateko administrazio-lanak osorik kudeatzea edota emate-agiriak eta fakturak aztertzea, izakinak erkatzea edo datuak edozein euskarritan grabatzea.

# Merkataritza aukerak sortu eta salmentak burutzen ditugu.



Salmenta-indarra  
(Task-Force)

LOGIKAN bildutakook esperientzia ugaria dugu salmenta-taldeak zuzentzen, eta, hortaz, Salmenta-indarreko (Task-Force) taldea dugu, Telemarketina lagungarri duena.

Kontuen exekutiboak, salmenta aholkulariak edota erakustokietako saltzaileak jartzen ditugu bezeroen eskura, besteak beste.

Horiek guztiek prestakuntza ugaria eta ezagutza sendoa dituzte Salmentetan eta Marketin Zuzeneko teknikan. Ate hotzeko bisiten zerbitzua ere ematen dugu.

Bezeroek beren produktuen salmentaren azken urratsa gure eskuetan utz dezatela da zerbitzu horren helburua, emaitza hobeak lor ditzaten.



info@logika.es • www.logika.es

**IPARRALDEKO  
ORDEZKARITZA**

☎ 944 797 500

**BIZKAIA**

Lutxana 4, 2. ezk.  
48008 Bilbo  
BIZKAIA

**BURGOS**

Caleruega, 53  
09001 Burgos  
BURGOS

**ERDIALDEKO  
ORDEZKARITZA**

☎ 914 457 282

**MADRIL**

Rodríguez San Pedro 2, 8.a  
28015 Madril  
MADRIL

BIZKAIA / ARABA / GIPUZKOA / NAFARROA / KANTABRIA / ERRIOXA / BURGOS / VALLADOLID / MADRIL / BARTZELONA